

BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

3818

EBAZPENA, 2025eko abuztuaren 20koa, Ingurumen Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez ematen baita Bizkaiko Urduñako La Rondina Industria Sektorearen eta Hirugarren Sektorearen Plan Partzialaren 2. xedapen-aldaketaren ingurumen-adierazpen estrategikoa.

AURREKARIAK

2023ko maiatzaren 26ko Ebazpenaren bidez, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak irismeneko dokumentua eman zuen EAES-626INET espedientean, «Bizkaiko Urduñako La Rondina Industria Sektorearen eta Hirugarren Sektorearen Plan Partzialaren 2. aldaketarako», lege hauek betez: 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena eta 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa.

Urduñako Udalak jendaurrean ipini zuen planaren eta haren ingurumen-azterketa estrategikoaren informazioa, 45 egun baliodunetan, 2024ko otsailaren 9ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuta (29. zenbakia), xedapen hauek betez: 2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikulua eta Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen 2012ko urriaren 16ko 12. artikulua.

Era berean, indarrean dagoen araudiaren arabera, ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egiteko tramitea bete zuen.

Urduñako Udalak adierazi du ez dela aurkeztu alegaziorik jendaurreko informazio-denboran, eta bidali dizkie kontsulta-tramitean jasotako txostenak ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei, administrazio-espedientean jasotako emaitza eta edukiarekin; alegazio eta txostenak kontuan hartu dira planaren behin-behineko onespenerako bertsioa idaztean.

2025eko maiatzaren 5ean, Urduñako Udalak eskabide bat aurkeztu zion Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzari ingurumen-adierazpen estrategikoa egiteko «Bizkaiko Urduñako La Rondina Industria Sektorearen eta Hirugarren Sektorearen Plan Partzialaren 2. aldaketarako» (aurrerantzean, Plana).

Eskaerarekin batera aurkeztu zituen Planaren 2025eko martxoko azken proposamena, 2025eko martxoko ingurumen-azterketa estrategikoa eta data bereko laburpen ez-tekniko bat, bai eta ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei eskainitako jendaurreko informazioaren eta entzunaldiaren tramiteen azalpen-dokumentuak ere.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Ingurumen-ebaluazioari buruzko 2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren helburua da ingurumenean eragin nabarmenak izan ditzaketen planak arautu behar dituzten oinarriak ezartzea eta ingurumenaren babes-maila handia bermatzea, garapen jasangarria sustatzeko.

2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.1 artikuluan xedatutakoa aplikatuz, administrazio publiko batek prestatu edo onetsitako planei eta programei ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egin behar zaie, bai eta haien aldaketei ere, lege- edo arau-xedapen batek beharturik pres-

2025eko irailaren 11, osteguna

tatu eta onetsi direnean, baldin eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera legez behartutako proiektuak baimentzeko etorkizuneko eremua ezartzen badute eta arlo jakin batzuei erreferentzia egiten badiete, hala nola hiri- eta landa-lurraldearen antolamenduari edo lurzorua erabilerari.

Bai Urduñako Udalak bai Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak beharrezkoa den guztia xedatu dute aurrera eraman ahal izateko planaren ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura, xedapen hauek betez: 2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 17. artikulua eta hurrengoak eta Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen 2012ko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua eta hurrengoak. Ingurumen-azterketa estrategiko bat egin dute, eta haren irismena aurrez ezarri, kontsulta publikoak egin dituzte, eta ukitutako administrazio publikoek eta interesdunek parte hartu dute prozeduran.

Planaren ingurumen-ebaluazio estrategikoaren espedienteko dokumentazio teknikoa eta txostenak aztertu ostean, eta kontuan hartuta ingurumen-azterketa estrategikoa egokia dela eta indarrean dagoen araudiari egokitzen zaiola, ingurumen-adierazpen estrategiko hau ematen du Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak, organo eskuduna baita 2024ko abenduaren 3ko 410/2024 Dekretuaren arabera (Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen du dekretu horrek). Adierazpenean, ingurumenaren arloko alderdiak planaren proposamenean egoki txertatu direla baloratzen da, eta plan horrek ingurumenean eragingo dituen inpaktu nabarmenen aipamena ere jasotzen da, azkenean onartuko den planean sartu beharreko azken zehaztapenak barnean direla, ingurumen-ondorioetarako bakarrik.

Xedapen hauek hartu dira kontuan: 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena; 410/2024 Dekretua, abenduaren 3koa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horrenbestez, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Bizkaiko Urduñako La Rondina Industria Sektorearen eta Hirugarren Sektorearen Plan Partzialaren 2. xedapen-aldaketaren ingurumen-txosten estrategikoa ematea. Hona hemen txostenaren edukia:

A) Urduñako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) 2004ko martxoaren 2ko 3000/2004 Foru Aginduaren bidez onartu zen behin betiko (2004-03-25eko BAO, 58. zk.).

2004ko ekainaren 9an, hasierako onarpena eman zitzaion P.I.1.– I eta P.P.I.2.– I sektoreen, sektore horien mugen arteko lurzorua eta BI-2625 errepedearen HAPOaren aldaketari, eta La Rondina Industria Sektorea sortu zen. HAPOaren testu bategina, La Rondina sektorean egindako aldaketekin batera, 2005eko ekainaren 9ko BAO n argitaratu zen (109. zk.).

La Rondina Sektorearen Plan Partziala 2006ko maiatzaren 25eko 943/2006 Foru Aginduaren bidez onartu zen behin betiko (2006-06-27ko BAO, 122. zk.).

La Rondina industria-sektoreak eta hirugarren sektoreak 205.777 m²-ko azalera du, mugatutako 217.385 m²-ko azalera osoari Bide Sistema Orokorreko 11.608 m²-ko azalera kenduta, Planaren aldaketak ez baitie eragiten erabilera pribatiboetarako ez diren azalerei.

Sektorearen urbanizazioa duela hamarkada bat baino gehiagotik dago eginda, eta lursailaren zati txiki bat baino ez dago okupatuta. Sektorea, oro har, gutxiegi erabiltzen denez, Urduñako HAPOak baimendutakoarekin bat datorren erabileren erregulazioa jaso behar da, eraldatutako lurzoru-ondarea erabiltzeari uztea saihesteko.

Beraz, aldaketaren xedea da Plan Partzialaren eta Urduñako HAPOaren arteko desadostasunak zuzentzea, gaur egun zaildu egiten baitute lurzati pribatu bakoitzean baimendutako eta debekatutako erabilera xehatuen gaineko interpretazioa.

Hauek dira Plan Partzialaren aldaketa honetarako erabilitako irizpideak:

- Erabilera-araubidea HAPOaren arau-esparrura eta egungo esparru juridikora egokitzea, eta, aldi berean, Plan Partzialaren araudian dauden desadostasunak zuzentzeko aprobetxatzea.
- Arau-esparru bat ezartzea, eremuan ezarri beharreko jardueren eskari potentzialera egokitu ahal izateko eskaintza, eta araudia eskari horietara egokitzea erraztea.

Horretarako, honako jardun hauek bete dira:

- 2. ordenantza berriz idaztea, HAPOak zehaztutako esparrura egokituz, eta baimendutako eta debekatutako erabilerak argi eta garbi ezarriz.
- Hirugarren sektoreko erabileren kokapena zehatz-mehatz definitzea, eta baimena ematea, xehetasun-azterketaren bidez, erabilera horietarako erreserbatutako eraikigarritasuna birkokatu ahal izateko.
- 4.1 ordenantzan beste baldintzatzaile bat sartzea, industria-lurzatietan ezar daitezkeen jarduera gogaikarri eta berezietarako segurtasun- eta osasun-baldintzen gainekoa.
- Industria-lurzatietan ekipamendu ez-publikoa erabiltzearen bateragarritasuna argitzea.
- Erabileren antolamendua mantentzea I-9A, I-9B, I-7 eta I-7bis lurzatietan.

Planaren eremua guztiz urbanizatutako industria-lurrean dago, baina lurzati gehienak hutsik daude.

Industrialdearen eremuaren barruan, ur-putzu bat dago, eta, Hezeguneen Lurralde Plan Sektorialaren inbentarioaren arabera, «Urduñako sakonuneko urmaelak» mugaketaren barruan dago (kodea: B4B2_01). Urmaela hezeguneen inbentarioko III. taldean dago, eta, beraz, ez du antolamendu- eta erregulazio-tresnarik.

Urduñako sakonuneko urmaelak Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoko Ereku Babestuen Erregistroan sartuta daude, 1610100309 kodearekin, baina ez da zehazten horien kopurua eta kokapen zehatza.

Industria-sektorearen mendebaldeko mugatik 500 metrora, ES2110004 Arkamu-Gibillo-Arrastaria kontserbazio bereziko eremua dago, eta distantzia handiagora, km 1 ingurura, ES0000244 Gorobel mendilerroa hegaztientzako babes bereziko eremua.

Tertanga ibaia industrialdearen ekialdetik igarotzen da, BI-2625 errepidearekiko paraleloan. Hala-ber, izenik gabeko erreka txiki bat dago, industrialdearen barruan dagoen urmaelari lotua, Kintana erreka isurtzen dena. Bi ibilguak «Interes Bereziko Ereku» gisa katalogatuta daude, bisoi europarra (*Mustela lutreola*) kontserbatzeko eta berreskuratzeko, espezie horren Bizkaiko Kudeaketa Planaren arabera. Espezie hori «galzoriko espezie» gisa katalogatuta dago Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan, eta arrisku kritikoan dago estatuan (TC/1078/2018 Agindua, 2018ko irailaren 28koa). Gainera, La Rondinako urmaela baso-igel jauzkariaren habitata (*Rana dalmatina*) eta dorka autoktonoen habitata ere bada –apoarmatu korrontezalearena zein apoarmatu istilzalearena–. Espezie horiek «kaltebera» gisa katalogatuta daude EAEko Espezie Mehatxatuen Katalogoan.

2025eko irailaren 11, osteguna

Hurbilen dauden kultura-ondasun izendatutako ondare-elementuak –hala nola Eliza Zaharra, San Kristobal eliza eta Zaldibar etxea– Planaren eremutik kanpo daude.

Sektoreko egungo landaredian honako hauek daude: belardi eta labore atlantikoak, lahardia, landaririk gabeko eremuak eta landare erruderal-nitrofiloak. Honelako ale isolatu txikiak ere badaude: makala (*Populus nigra*), zumarra (*Ulmus minor*) eta lizarra (*Fraxinus excelsior*). Planaren aldaketaren xede den eremuan, ez dago Batasunaren intereseko habitatik, ez eta mehatxatutako flora-espezierik ere.

Izan daitezkeen arriskuei dagokienez, akuiferoen kutsadurarekiko kalteberatasuna ertaina da; gainera, industrialdea ez dago uholde-eremuan –ez 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denborako uraldien eraginekoan eta ezta lehentasunezko fluxu-eremuen eraginekoan ere–. Eremuan, lurzoru kutsa dezaketen jarduera edo instalazioak egon diren lurzoruen inbentarioko bi lurzati industrial daude: gaur egun industrialdean okupatuta dauden 48074-00003 eta 48074-00004 lurzatiak.

Arrisku teknologikoa gai arriskutsuak trenbidez garraiatzera mugatzen da, trenbidea hurbil baitago –100 eta 200 m artean–, baina ez baitago arriskutsua izan daitekeen eta SEVESO III araudiaren menpe dagoen industria-jarduera arriskutsurik –840/2015 Errege Dekretua, irailaren 21ekoa, substantzia arriskutsuekin zerikusia duten istripu larrien berezko arriskuak kontrolatzeko neurriak onartzen dituena–.

Zaritari dagokionez, betetzen dira kalitate akustikoko helburuak (KAH) industria-erabilerarako azterketa-eremuan –erabilera nagusia da–, bai egungo egoeran, bai etorkizuneko egoeran, eguneko aldi guztietan, modelizazioaren emaitzaren arabera.

B) Txosten hau bat dator ingurumen-azterketa estrategikoaren ondorio nagusiekin, eta ondorioztatzen da nahikoa justifikatu dela aintzat hartu direla Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren Zuzendaritzaren 2023ko maiatzaren 26ko Ebazpenaren bidez eman-dako irismen-dokumentuan aurkeztu ziren ingurumen-irizpideak.

Planean, ingurumen-azterketa estrategikotik eratorritako ingurumen-alderdiak txertatu dira, ingurumen-organoak emandako irismen-dokumentuan eskatutako zabalatasun-, xehetasun- eta zehaztasun-maila bermatuta. Ondorioztatzen da ingurumen-arloko tramitazioan adierazitako alderdi guztiak behar besteko zorroztasunez jorratu direla, plangintza-prozesuan gerta litezkeen ingurumen-eraginak kontuan hartu direla bermatzeko moduan.

C) Plana tramitatu bitartean, ez da sartu ingurumen-ebaluazio estrategikoa hedatzea eskatzen duen jarduketa berririk. Ez da detektatu, halaber, planean ezabatu edo berriz definitu behar den ekintzarik. Hala ere, Planaren eremutik kanpo utzi dira I-9, I-7, I-7bis, E1 eta Z.V.– II eremuak, eta, ondorioz, gauza bera egin da haren ingurumen-ebaluazioan, eta ez da ezarri eremu horietarako ingurumen-neurri espezifikorik ere.

D) Babes- eta zuzenketa-neurriak arau hauen arabera gauzatuko dira: indarrean dagoen araudia, ingurumen-adierazpen estrategikoa ematen duen ebazpen honen hurrengo apartatuetan ezarritakoak, eta, aurrekoaren aurkakoa ez den orotan, ingurumen-dokumentu estrategikoan eta Planean bertan jasotakoa.

Plana garatzean aplikatu beharreko neurriek loturik egon behar dute alderdi hauei buruzko jardunbide egokien eskuliburuarekin: obrak egitea, soberakinak kudeatzea, hondakinak sortu eta kudeatzea, hondeatutako lurzoruak kontrolatzea eta urak, airearen kalitatea eta kalitate akustikoa babestea. Besteak beste, neurri hauek hartu beharko dira, eta Planak azkenean hartzen dituen zehaztapenei erantsiko zaizkie:

– Obrako langileek erabiltzeko jardunbide egokien eskuliburua. Gai hauekin lotutako alderdiak bilduko ditu, gutxienez: lanaldiak, makineria, uretara isurketak egitea saihestea, ahalik eta hauts eta zarata gutxien sortzea, herritarren lasaitasunean eragin negatiboa duten jarduerak minimizatzea, hondakinak kudeatzea eta abar.

2025eko irailaren 11, osteguna

– Obra-eremua mugatzea eta instalazio osagarriak kokatzea: bai obrak, eta baita lurzorua okupatu beharra dakarten jarduera osagarriak ere, haiek egikaritzeko behar-beharrezkoa den gutxieneko eremuan gauzatuko dira. Ingurumenari ahalik eta gutxien eragiteko irizpideei jarraikiz proiektatuko dira kontratistaren instalazio-eremuak, barnean direla makineria-parkea, obra-txabolak, obrako materialak aldi baterako biltegitzeko gunea eta landare-lurra eta hondakinak aldi baterako biltzeko guneak.

– Hondakinak sortu eta kudeatzea: sortutako hondakinak, hondeaketetatik eratorritakoak barne, 7/2022 Legean eta aplikatzekoak diren araudi espezifikoetan zehaztutakoaren arabera kudeatuko dira –7/2022 Legea, apirilaren 8koa, Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko–.

Hondakinak kudeatzeko hierarkia-printzipioei jarraituz, hondakinak sortzeari aurre hartzea sustatu behar da, edo, hala badagokio, 2022ko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 8. artikuluan ezarritako lehentasun-hurrenkeran kudeatu daitezela, hau da: prebenitzea, berrerabiltzeko prestatzea, birziklatzea eta balorizatze besterik beste modu batzuk, balorizazio energetikoa barne.

Hondakinak deuseztatzeko, ezinbestekoa izango da alde zuzenetik behar bezala justifikatzea ez dela bideragarria haiek balorizatzea teknikoki, ekonomikoki edo ingurumenaren aldetik.

Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereziak izango dira, duten tipologia dela eta, isurketaren bat gertatuz gero, nahasita, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketenean kasuetan. Hondakin arriskutsuak dituzten edukiontzien edo ontzien 7/2022 Legearen 21. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak beteko dituzte –7/2022 Legea, apirilaren 8koa, Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko–, eta itxita egongo dira kudeatzaileari entregatu arte, isurita edo lurrunduta edukirik gal ez dezaten. Aipatutako edukiontzien edo ontzien etiketatuz egin beharko dira, era argi, irakurgarri eta eza-baezinean, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Eremu jakin bat egokituko da hondakin arriskutsuak behin-behinean biltzeko, hala nola olio-potoak, iragazkiak, olioak, pinturak eta abar. Gainera, hondakin geldoak biltzeko edukiontzi espezifikoak jarriko dira, hondakin arriskutsuen guneetatik bereizita. Halaber, obran zehar, eta lanek irausten duten bitartean, sortutako hondakinak biltzeko gailu iragazgaitzak jarriko dira (bidoiak eta abar). Hondakin horiek motaren arabera bereizi beharko dira, aipatutako biltzeko-gunean aldi baterako biltegitatu baino lehen.

Berariaz debekatuta dago sortzen diren tipologia ezberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira, eta horiek bildu eta biltegitatzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketak ekiditeko.

Olio erabiliak estalpean utziko dira kudeatzaile baimendu bati eman arte, behar bezala etiketatutako ontzi iragazgaitzetan, zolata iragazgaitz baten gainean, eta kubetoetan edo isuriei eta ihesei eusteko sistemen barruan.

Araudi hori betetzea errazagoa izan dadin, lanen ondorioz sortutako hondakinak kudeatzeko sistemak jarri beharko dira. Lan horien arduradunek kudeatuko dituzte sistema horiek, eta haien ardura izango da langileek sistema horiek behar bezala erabiltzea. Berezi, inola ere ez da kontrolik gabeko efluenterik sortuko erregai eta produktuak biltegitatzeagatik, makinaren mantentze-lanak egiteagatik edo hondakinak erretzeagatik.

Industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen 2006ko ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari jarraituz kudeatuko dira olio erabiliak.

Eraikuntza-lanetan baliabideak modu efizienteagoan erabiltzeko beren bizi-ziklo osoan eta, bereziki, bizi-zikloaren amaieran hondakinak modu efizienteagoan aprobetxatzeko, eraikuntza- eta eraispén-hondakinak xedapen hauen arabera kudeatuko dira: 105/2008 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, eraikuntza- eta eraispén-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituena, eta 112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispén-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko dena.

Lur- eta arroka-soberakinak, ahal bada, haien premia duen inguruko obra batean balorizatzeko dira; hori ezinezkoa bada, obretan sortutako hondeaketa-soberakinak soberakinen biltegi baimendura eramango dira, eta indarrean dauden legeen arabera kudeatuko dira: hau da, 646/2020 Errege Dekretua, 2020ko uztailaren 7koa, Hondakinak zabortegietan utziz deuseztatzea arautzen duena, eta 49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena.

– Obrak egin bitartean lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten beste kokagune batzuk atzeman ez gero, edo lurzorua kutsatzen duten substantziak daudelako zantzu funtsatuak egonez gero, horren berri eman beharko zaie, berehala, Urduñako Udalari eta Ingurumen Sailburuordetzari, azken horrek zehatz ditzan zer neurri hartu behar diren eta zein pertsona fisikok edo juridikok bete beharko dituen neurriak, 2015eko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 22.2 artikulua betez –lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko legea–.

– Leheneratzea:

Obrak egiteagatik erasandako eremu guztiak leheneratuko dira, kendu diren zuhaitzak birjarririta, hala behar bada.

Obrek erasandako guneak leheneratzean, jasangarritasun-irizpideak lehenetsiko dira, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak landutako «Lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatzeko eskuliburua. Udalsarea. 2017» eredu, eta, besteak beste, eremu hartako baldintza bioklimatikoetara egokitzen diren eta mantentze-lan gutxi behar duten landare-espezie autoktonoak erabiltzea bultzatuko da.

Zoladura edo okupazio iragazgaitza ahalik eta gehien murriztuko da behar-beharrezkoa den azalaretara, eta, ahal den neurrian, drainatze jasangarriko sistemak sartuko dira –«Uholde-arriskura egokitzeko gida: drainatze jasangarriko hiri-sistemak. 2019», MITECOrena–, jariatze-urak igoz gero konpentsatu daitekeela edo garrantzirik ez duela izango bermatzeko.

Espezie inbaditzaileak kontrolatzeko, haiek hedatzeko arriskua murriztu beharko da, birlandaketa-lanetan flora aloktono inbaditzaileko aleak kendu eta landareak berriro sartzen direnean. Kasu horretan, bermatu beharko da birlandatze-lanetan eta lorategiak egiteko lanetan erabilitako landare-lurrak ez duela flora inbaditzaileko propagulurik eta ez dela erabiltzen inbaditzailea izan daitekeen espezie aloktonorik edo espezie arriskutsurik –kontsultatu Espezie apaingarriak hautatzeko gida (Udalsarea. 2017)–, hala nola *Fallopia japonica*, *Robinia pseudoacacia* eta *Cortaderia selloana* edo beste batzuk. Halaber, espazio libreak lehenbailehen landaretatzeko dira, higadura-prozesuak gertatzea, solidoak drainatze-sarera arrastatzea eta espezie aloktono inbaditzaileen kolonizazioa saihesteko.

Gainera, «Flora aloktono inbaditzailea desagerrarazteko eta kontrolatzeko protokolo» bat txertatuko da, dauden espezieak desagerrarazteko neurriak jasoko dituena.

2025eko irailaren 11, osteguna

– Lurzorua eta lurpeko urak babestea: prebentzio- eta zuzenketa-neurriak ezarriko dira obra-faserako, istripuzko isurien erasanak saihesteko, bereziki makinaren mantentze-lanetan (material xurgatzaileak erabiltzea, isuriekin kutsatutako lurra kendu eta kudeatzea eta abar).

Bilketa-eremuak, instalazio osagarriak eta makineria-parkea gainazal iragazgaitzetan kokatu dira. Makinen mantentze-lanik ez da egingo iragazgaiztu gabeko eremuetan, eta, nolatan ere, hondakinak (bereziki, olio erabiliak) biltzeko sistema bat izango duen plataforma iragazgaiztu baten gainean egingo dira obran erabiltzen den makineriari erregaia jartzeko, lubrifikatzaileak aldatzeko eta abarrerako lanak, urak kutsatu ez daitezten.

Ibilgailuak eta makinak garbitzeko gailuak egongo dira, baita gurrupilak garbitzeko plataformak ere, lokatzik edo hautsik ez hedatzeko, eta kamioiek obretan sartzeko eta obretatik ateratzeko erabiliko dituzten bideak garbi eduki beharko dira, presiozko ura edo erratz-makinak erabilia.

– Obren zarata: obra-fasean erabilitako makineriak bete egin behar ditu aire zabalean erabiltzen diren makinaren soinu-emisioen inguruan indarrean dagoen legerian ezarritako aginduak, Zaratar buruzko 2003ko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen 2007ko urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren 22. artikuluan ezarritakoaren arabera (zonifikazio akustikoari, kalitate-helburuei eta emisio akustikoei dagokien errege-dekretua), eta, bereziki, hala badagokio, 2002ko otsailaren 22ko 212/2002 Errege Dekretuan eta arau osagarrietan ezarritakoaren arabera (aire zabalean erabiltzen diren makina jakin batzuen ondoriozko soinu-emisioak arautzen dituen errege-dekretua –2006ko apirilaren 28ko 524/2006 Errege Dekretuak aldatua–).

Obrek iraun bitartean, jardunbide operatibo egokiak aplikatu beharko dira zaratak sorburuan murrizteko, bereziki indusketetan, eraispenetan, zamalanetan eta garraio-lanetan, eta baita erabilitako makinaren mantentze-lan orokorrak egitean eta zarata eta bibrazioak sorburuan murriztean ere.

Eguneko lan-ordutegian egingo dira lanak.

Lanek sei hilabete baino gehiago irauten badute, inpaktu akustikoaren azterlan bat egin beharko da, behar diren neurri zuzentzaileak zehazteko, 2012ko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 35 bis artikulua arabera.

Kamioiek obrara sartzeko eta handik irteteko erabiltzen dituzten bideak garbi mantendu beharko dira; horretarako, presioko ura edo erratz-makinak erabiliko dira.

Euskal Kultura Ondarearen 2019 maiatzaren 9ko 6/2019 Legean ezarritakoa ezertan eragotzi gabe, obretan aztarna arkeologikoren bat egon daitekeela pentsarazten duen zerbait aurkitzen bada, obrak eten egingo dira badaezpada, eta berehala jakinaraziko zaio Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusiari; hark erabakiko du zer neurri hartu.

– Argi-kutsadura.

Kanpoko argiztapenari dagokionez, energia-efizientzia maximizatzeraz eta argi-kutsadura minimizatzeraz jo beharko da, 2008ko azaroaren 14ko 1890/2008 Errege Dekretua betez (Kanpo-argiztapeneko instalazioen energia-efizientziari buruzko erregelamendua eta haren jarraibide tekniko osagarriak onartzen dituena, EA-01etik EA-07ra).

– Energia-efizientzia eraikuntzan:

Modu jasangarrian eraikitzeke gidaliburuetan jasotako neurriak eta ingurumen-jardunbide egokiak erabiliko dira, aurreikusitako eraikinen energia-aurrezte eta efizientzia bultzatzeko eta energia berriztagarriak sustatzeko.

Neurri horiek, gutxienez, alderdi hauetan eragin beharko dute:

- Materialak. Lehengai berriztaezinen kontsumoa murriztea.
- Energia. Energia-kontsumoa edo -sorkuntza murriztea iturri berriztaezinen bidez.
- Edateko ura. Edateko uraren kontsumoa murriztea.
- Ur grisak. Ur grisen sorrera murriztea.
- Uraren zikloa. Uraren kudeaketa eta kalitatea hobetzea.
- Atmosfera. Gas-, hauts-, bero- eta argi-emisioak murriztea.
- Barne-kalitatea. Barne-airearen kalitatea, konforta eta osasuna hobetzea.
- Hondakinak. Hondakinen kudeaketa hobetzea edo hondakin gutxiago sortzea.
- Lurzoruaren erabilera. Lurzoruaren okupazioa murriztea.
- Mugikortasuna eta garraioa. Mugikortasun jasangarri eta unibertsala sustatzea. Garraio-prozesuak gutxitzea eta pertsonen mugikortasuna hobetzea.
- Ekosistemak eta biodibertsitatea. Naturaguneen funtzioak hobetzea eta biodibertsitatea handitu edo kontserbatzea.
- Paisaia. Sektorea eta haren instalazioak paisaian integratzea.
- Arriskuak eta segurtasuna. Arrisku naturalak edo antropikoak minimizatzea.
- Klima-aldaketa. Klima-aldaketaren ondorioetara egokitzea.

E) Ingurumen-jarraipeneko plana.

Planaren ingurumen-jarraipenak ingurumen-azterketa estrategikoan ezarrita dagoenari jarraituko dio, zeinak Ingurumena Zaintzeko Programa bat jasotzen baitu. Programa horren xedea da behar diren zaintza- eta kontrol-sistemak ezartzea, egiaztatu ahal izateko planeko aurreikuspenak betetzen direla, eta, horien barruan, planteatutako jarduketaren ingurumen-exijentziak mantentzen direla.

Aurreikusitako garapen-proiektuetan, obrak egin bitartean zer kontrol egin behar diren zehaztu beharko da, bereziki arlo hauetan: lur eta urak babestea, kalitate akustikoa eta atmosferikoa babestea, ingurumena leheneratzea eta lur-mugimenduak. Era berean, ingurumen-jarraipenean, leheneratzearen arrakasta kontrolatuko da, bai eta espezie inbaditzaileen hedapenaren kontrola ere.

F) Planaren ondoriozko proiektuen ingurumen-ebaluaziorako gidalerro orokorrak.

Planaren ondoriozko proiektuen ingurumen-ebaluazioan, aintzat hartuko dira lurraldearen baldintzatzaileak eta ingurumen-adierazpen estrategiko honetan azaldutako ingurumen-irizpideak.

Besteak beste, honako alderdi hauek azpimarratu behar dira: lurzorua babestea; lur-mugimenduak eta hondakinak modu jasangarrian kudeatzea; zarata, emisio atmosferikoak eta argi-kutsadura minimizatzea; esku-hartzeak paisaian behar bezala integratzea, lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatuz; ingurune hidrikoa babestea; herritarrak eta ukitutako zerbitzuak babestea; garapen jasangarriko neurriak eta klima-aldaketa arintzeko eta horretara egokitzeko neurriak ezartzea.

2025eko irailaren 11, osteguna

Bigarrena.– Bi urteko gehieneko epea ezartzea Bizkaiko Urduñako La Rondina Industria Sektorearen eta Hirugarren Sektorearen Plan Partzialaren 2. xedapen-aldaketa onartzeko, ingurumen-adierazpen estrategiko hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik aurrera. Epe hori igarotakoan Plana ez bada onartu, ingurumen-adierazpen estrategiko honen indarraldia amaitu egingo da, eta hortik aurrera ez du ondoriorik izango. Kasu horretan, sustatzailerak berriro hasi beharko du Planaren ingurumen-ebaluazio estrategikoaren tramitea, non eta ez den adosten ingurumen-adierazpen estrategikoaren indarraldia luzatzea. Hori guztia, Ingurumen Ebaluazioari buruzko 2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 27. artikuluekin bat etorriz.

Hirugarrena.– Urduñako Udalari jakinaraztea ebazpen honen edukia.

Laugarrena.– Erabaki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko abuztuaren 20a.

Ingurumen Administrazioaren zuzendaria,
NICOLAS GARCIA-BORREGUERO URIBE.